

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda

Iragarki hau argitaratzen denetik aurrera hamabost egunez egongo da jendaurrean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda, interesdunek aztertu eta, egoki iritziz gero, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Hamabost egun baliodun horietan trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda dela-eta alegaziorik aurkezten ez bada, kobratzeko moduan jarriko da.

2021eko martxoaren 1etik apirilaren 30era bitarteko egun baliodunetan, bi horiek barne, ordaindu ahal izango da, borondatezko epean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2021ekoa.

Zerga horren eraginpekoek udalaren diruzaintzan ordaindu ahal izango dute, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Adierazitako epea igarotakoan administrazio premiamendu bidez kobratzeko prozedurari hasiera emango zaio, indarrean dagoen Zergabilketarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenei jarraituz, eta ordaindu ez diren kuotei ehuneko bosteko errekarquarekin kobratuko dira. Errekargu hau luzapenaren errekarquarekin bateragarria da.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2021eko otsailaren 3a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES